

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Zestoako Udala eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
2. Sektorea:	Erakunde publikoak
3. Langile kopurua:	Zestoako Udalak 36 eta UEMAK 12
4. Webgunea:	zestoa.eus eta uema.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Tokiko erakundeak (udala eta mankomunitatea)

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Nora Palmitano Rossi eta Imanol Haro Solaberrieta
Helbide elektronikoa:	euskara@zestoa.eus eta imanol.udalak@uema.eus
Telefonoa:	943 1470 10 (Nora) eta 943 260 372 (Imanol)

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Telegram bidezko bat-bateko itzulpen sistema
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Herritarren aurreko bileretako hizkuntza kudeatzeko balio du sistemak. Bileran euskaraz egin liteke, eta euskara ulertzen ez dutenek euskaratik gaztelaniarako bat-bateko itzulpena izango dute. Hauek dira eman beharreko urratsak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Eskuko telefonoan, tabletean edo ordenagailuan Telegram aplikazioa instalatu. Egokiena eskuko telefonoa, maneigarriagoa baita. Entzungailuak ere behar dira (aurikularrak).- Eskuko telefonoan Telegram aplikazio instalatuta daukaten herritarrek kanal batean sartu beharko dute.- Bileran, azalpenak euskaraz ematen dira, eta pertsona bat euskarazkoa gaztelaniara itzultzen ari da, eta Telegrameko kanalarik hitz egiten dio. Hartara, kanal berean dauden herritarrek aldi bereko euskara-gaztelania itzulpena entzuten dute entzungailuen bidez. <p>Onurak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Bileran ez da alferrik luzatzen, ez direlako gauza berberak euskaraz eta gaztelaniaz esaten.- Euskara ulertzen ez dutenek bileraren nondik norakoak jarraitzen dituzte.- Bilerak nagusiki/erabat euskaraz egiteko aukera ematen du. Partaideek euskara ez badakite euren interbentzioak gaztelaniaz egingo dituzte, baina euskaldunek ez dute gaztelaniaz errepikatu beharko euskaraz esaten dutena.- Sistemak ez du kosturik, doan da. <p>Oharra: interpreteak egonez gero hainbat hizkuntzetara egin daitezke itzulpenak</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

- Aldi bereko itzulpena Telegram bidez (Android sistema eragilearekin)
- Aldi bereko itzulpena Telegram bidez (IOS sistema eragilearekin)